
Euskadiko Parke Teknologikoak, 2024an 8.243 milioi euro, 2023an baino % 11,5 gehiago, fakturatu zituzten 673 enpresa ditu dagoeneko

- **23.600 pertsonak baino gehiagok, gehienak kualifikazio handikoak, egiten dute lan Euskadiko Parke Teknologikoko sei campusetan instalatutako enpresaren batean.**
- **Ezarritako enpresa kopuruari dagokionez IKTen eta Biozientzien sektoreak nabarmentzen dira, eta Aeronautikak, berriz, sektoreko fakturazio indizearen buru izaten jarraitzen du, 2.479 milioirekin.**
- **Oro har, plantilletako berdintasun datuek hobetzen jarraitzen dute, eta Berdintasun Plan bat duten 50 langile baino gehiagoko enpresa kopuruak gora egin du.**
- **Jaione Ganzarain Euskadiko Parke Teknologikoko presidenteak adierazi duenez, "datu horiek Estatuan aitzindaria eta European aintzatesia den ereduaren arrakasta adierazten dute, etorkizuneko industria-sektoreen aldeko apustuarekin".**

2025eko apirilaren 16a. Euskadiko Parke Teknologikoak azken urteetako hazkundearen ildoari eutsi zion 2024an, eta egungo sei campusetako batean (Zamudio/Derio, Gasteiz, Donostia, Leioa, Hernani eta Abanto) dauden 673 enpresara iritsi da. Ekosistema zientifiko-teknologikoaren indarra agerian geratzen da, halaber, enpresa horien baterako fakturazioaren bolumena (8.243 milioi euro, hau da, 860 milioiko igoera 2023arekin alderatuta) eta plantillen hazkundera ikusita, dagoeneko 23.674 pertsonak osatzen baitituzte.

Datu horiek Euskadiko Parke Teknologikoaren Urteko Jarduerari buruzko Txostenean daude jasota. Txosten horrek enpresek ekitaldia itxi ondoren emandako datu nagusiak biltzen ditu. Informazio hori aztertzea funtsezkoa da ekosistemaren egoera ezagutzeko eta enpresen jarduerarekin batera doazen eta haien beharretara egokitutako ingurune sozioekonomikoa sortzen lagunduko duten ekimenak abian jartzeko, digitalizazioa, jasangarritasuna, energia-eraginkortasuna edo mugikortasuna bezalako funtsezko alderdietan.

Jaione Ganzarain Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuorde eta Euskadiko Parke Teknologikoko presidenteak azpimarratu duenez, "Parke Teknologikoa punta-puntako ingurunea da lehen mailako enpresa-proiektuak erakartzeko eta garatzeko; dagoeneko goi-mailako kualifikazioko 23.600 pertsona ditugu gure campusetan lanean. Aitzindariak izan ginen Estatuko lehen Parke Teknologikoarekin, eta Europa mailan aitzatetsiak gara, aurkezten ditugun datuak ikusita eredu arrakastatsua garelako".

Hala ere, Ganzarainek gogorarazi duenez, "ez gara datu horietan bakarrik geratzen, gure buruarekin exigentzia maila altua dugu eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko beste urrats bat eman nahi dugu. Etorkizuneko industria sektoreen alde egiten dugun apustua nabarmena da: biozientzien sektorea ugariena da dagoeneko, mota horretako 129 enpresa baitaude campusetan, eta, ondoren, Informazio Teknologien sektorea dago, 127 enpresarekin. Bien artean parkeko enpresen % 40a osatzen dute. Fakturazioari dagokionez, aeronautika da gailentzen dena –etorkizuneko beste industria sektore bat–, enpresen fakturazioaren % 30 metatuz (2.479 milioi). Azken batean, industria gehiagoren, industria hobearen eta emisio gutxiagoen alde egiten dugu".

Parke enpresek emandako zifrek, oro har, hazkunde orokorra erakusten dute jarduera-eremu nagusi guztietan. Fakturazioa % 11,5 igo zen 2023ko itxierarekin alderatuta (8.243 milioi, aurreko urteko 7.381en aldean), eta 642 profesional sartu ziren plantilletan, 23.674 langileko zifra errekorra iritsi arte, gehienak kualifikazio handiko lanei lotuta. I+Gko gastuak ere igoera esanguratsua izan zuen, 2023an 660 milioi izatetik 2024an 754 milioi izatera igaro baitzen, hau da, % 14,2ko igoera. Era berean, atzerriko kapitala duten enpresen kopuruak ere gora egin zuen, 69 baitira dagoeneko.

Langileen atalean, langile kopuru osotik harago, txostenak egoeraren ikuspegi zehatzagoa ematen du kualifikazioari, generoari eta I+G dedikazioari dagokienez. Hala, LHren ingurunera hurbiltzearen aldeko apustuak, aurten Parke enpresen inguruan Batxilergoko 1.000 ikasle baino gehiago mobilizatu dituen LH Parke bezalako ekimenekin, isla izaten jarraitzen du plantilletan, 2024an jada LHko titulazioa zuten 6.092 profesional baitzeuden kontratatuta.

Hala ere, unibertsitate-titulazioek osatzen dute profil profesionalen muin nagusia Parke enpresetan, unibertsitateko prestakuntza duten 12.792 pertsona baitaude bertan. Kopuru horri doktoretza duten 2.162 profesional eta bestelako profil akademikoak dituzten 2.627 pertsona gehitu behar zaizkio. Bestalde, I+G jardueretan espezifikoki aritzen diren langileak 7.369 dira; horietatik 4.276 gizonak dira eta 3.093 emakumeak. Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da, halaber, berdintasun-politiketan emandako aurrerapausoak. Era berean, Berdintasun Planak ezarri dituzten 50 langiletik gorako enpresen kopurua % 13 handitu zen 2024an, eta 170 enpresara iritsi zen.

Lidergoari dagokionez, adierazle bereziki garrantzitsua da 146 enpresa, hau da, enpresa guztien ia % 22a, zuzendaritza orokorreko edo CEO postuetan dauden emakumeek zuzentzen dituztela. Zifra horrek % 11 ingurukoa den Euskadiko batez bestekoa bikoizten du, eta agerian uzten du Parke enpresek kudeaketa eredu askotarikoagoekin eta inklusiboagoekin duten konpromisoa.

Azkenik, talentuaren arloan, plantillak gaztetzeko prozesuak aurrera jarraitzen du: gaur egun, 4.489 langilek 30 urte baino gutxiago dituzte.

Datuak sektoreka

Jarduera-sektoreen arabera, Biozientzien sektorea da ugariena enpresei dagokienez, 129 konpainiarekin, eta, ondoren, IKT sektorea (127) dator. Bi sektoreek guztizkoaren % 40 inguru hartzen dute enpresa kopuruari dagokionez, baina langile kopuruari dagokionez datuak desberdinak dira. Plantillei dagokienez IKT sektorea da liderra, enpleguaren % 20,44arekin (4.840 profesional), eta ondoren I+G sektorea dago, % 18,9arekin (4.476 profesional). Biozientziek 3.041 langile dituzte (% 12,85).

Fakturazioari dagokionez, 2024an erregistratu da berrikuntzarik handiena sektoreka jasotako zifretan. Iaz, aeronautikaren sektorea nabarmendu zen atal horretan,

2.470 milioi fakturatuta, hau da, Parke enpresen fakturazio osoaren % 30a. Atzetik daude IKT sektorea, 1.980 milioirekin, eta I+G sektorea, 1.269 milioirekin.

Azkenik, jarduerako beste datu batzuen artean, jasotzen da Euskadiko Parke Teknologikoko enpresek 148 patente nazional eskatu zituztela 2024an, eta horietatik justu erdia eman zitzaizkiela: 74. Gainera, 30 enpresa 2030 Agendaren – pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko 2030era arteko asmo handieneko ekintza plana– bazkide dira edo sinatu dute, eta euren jardueran garapen jasangarrian laguntzeko konpromisoa hartu dute.

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa
Prentsa Saila
prentsa@parke.eus
T 94 403 95 00